



AGIFESEN I. ILUSTRAZIO LEHIAKETA

Zaila egiten zaigu, askotan, buruko osasun arazo bat dugunean, ahaideei eta adiskideei nola sentitzen garen azaltzea. Depresioaren kasuan, nahasmendu hau tristurarekin edota gogo faltarekin lotzen dute askok, baina arazoa hori baino askoz konplexuagoa eta sakonagoa da.

Hori dela eta, depresioari buruzko Lehen Ilustrazio Lehiaketa jarri dugu abian, nahasmendua pairatzen dutenen sufrimendu psikikoa azalarazteko eta adierazteko eta, aldi berean, imajinario kolektiboa zabaltzeko helburuarekin.

Depresioa nola antzematen duzun ikustea gustatuko litzaiguke. Ilustratzera animatuko al zara?

Baliteke erronka erraza ez izatea, baina onuragarria izango da ziur, gure arazoak partekatzea eta ingurukoen laguntza jasotzea bezain-beste.

Zure ekarpena ikusteko irrikan gaude!



PARTE-HARTZEA

- Lehiaketan parte hartzen duten pertsonak 18 urtetik gora izan behar dute, eta edozein nazionalitate edota jaioterri izan dezakete.
- Adin txikikoek ere (baita tutoretzapean dauden pertsonak ere) parte har dezakete lehiaketan, gurasoek edo tutoreak sinatutako baimenarekin. Argazkiekin batera bidaliko da baimena. Sinatu beharreko baimena dokumentu honen bukaeran aurkituko duzu.

GAIAK

- Irudiek **depresioarekin** lotura izan behar dute.
- Depresioaren inguruko **mitoak deuseztatzen** laguntzen duten lanak baloratuko dira.
- Lanen **sormena, originaltasuna eta kalitate teknikoa** baloratuko dira.

TEKNIKA

- **Teknika piktoriko edo grafiko guztietako** lanak aurkeztu daitezke, eta **material tradizionalak edota ilustrazio digitala** baliatu daitezke.

LANEN AURKEZPENA

- Ilustrazioak **formatu digitalean** aurkeztu behar dira, eta hurrengo baldintza hauek errespetatu behar dira:
 1. **JPG, TIF** edo **PDF** artxiboak.
 2. Bete beharreko erresoluzioa: **300 ppp.**
- **Arte digitaleko lanak** edo **paperean** eginitako ilustrazioak eta eskaneatuak aurkeztu

daitezke.

- **Lanek DIN A4 tamaina minimoa** izan behar dute.
- **Pertsona bakoitzeko 5 lan** aurkeztu daitezke gehienez.
- Ilustrazioak **originalak eta argitaragabeak** izan behar dute; ez dira beste lehiaketa batzuetara aurkeztutako lanak onartuko.
- Ez dira egilea ez den **beste norbaitek eginitako ilustrazioak edo egilearenak ez diren ilustrazioak onartuko.**
- **Parte-hartzaileak adierazten eta bermatzen du** lehiaketara aurkeztutako lanaren egile-eskubide guztien titular bakarra bera dela; eta aurkeztutako lanen eskubideak beste batzuek ez edukitzeaz arduratuko da, adibidez, beste batzuei irudi-eskubiak erreklamatzeko.
- Irudiak **Info@agifes.org** helbidera bidali behar dira, dokumentu batean bildutako hurrengo informazioarekin:
 - Izena
 - Abizena
 - NAN zenbakia edo nortasun-agiria
 - Emaila
 - Telefonoa
- Lana aurkezterakoan, parte-hartzaileek lanaren **izenburua eta deskribapena** adierazi beharko dituzte.

LANAK ENTREGATZEKO EPEA

- Lanak entregatzeko epea **2019ko uztailaren 19an** amaituko da.

SARITUTAKO LANEN HAUTAKETA

- **Agifeseko sentsibilizazio batzordeak** (elkarteko bazkide diren hainbat pertsonen osatutako taldea) **aurkeztutako lanen lehen hautaketa** egingo du, aurretik aipatutako irizpideak oinarri bezala hartuta.
- Aurretiko hautaketan aukeratutako lanak deialdia itxi eta egun batzuk beroago argitaratuko dira, **Agifesen Facebook orriko** aplikazio baten bitartez. Horrela, Facebookeko erabiltzaileek gehien gustatzen zaien ilustrazioaren alde bozkatu ahal izango dute irabazleen hautaketan parte hartzeko.
- Agifeseko sentsibilizazio batzordeak, **10 lan bozkatuenen artean, 3 irudi irabazle aukeratuko ditu**. Hautaketa apelaezina izango da.
- **Pertsona berak ezingo ditu bi sari irabazi**, nahiz eta berak aurkeztutako bi irudi baino gehiagok boto kopuru gehien lortuko baltuzte ere.
- Irabazleen izenak eta lanak **www.agifes.org** web orrian argitaratuko dira. Gainera, email bidez edo telefonoz jasoko dute informazioa irabazleek.

AURKEZTUTAKO LANEN ARGITALPENA

- Saritutako lanak Agifesen web orrian, www.agifes.org, eta elkartearen aldizkarian argitaratuko dira, eta Facebook, Twitter eta Instagram bitartez zabalduko dira.
- Lehiaketara aurkeztutako argazkiak, beti ere egilearen izena aipatuz, edozein momentu edo lekutan, mugarik gabe, argitaratzeko edota erabiltzeko eskubideak gordetzen ditu Agifesek.
- Agifesek **ez ditu irudiak helburu komertzialekin erabiliko**, eta ez ditu hirugarrenekin partekatuko egilearen baimenik gabe.

ADOSTASUNA

- Parte hartzearekin batera aurrez adierazitako oinarriak onartzen ditu partaideak.

SARIAK

- Hurrengo sariak banatuko dira:
 - **1. saria:** 500 euro eta diploma
 - **2. saria:** 350 euro eta diploma
 - **3. saria:** 150 euro eta diploma

DATU PERTSONALEN BABESA

ASOCIACION GUIPUZCOANA DE FAMILIARES ENFERMOS PSIQUICOS elkarteak, lehiaketan parte hartzeko emandako datuen tratamenduaren arduradun gisa, jakinarazten du honako helburuekin jaso direla datuak: elkarteak antolatutako zozketa edo lehiaketetan parte hartzen duten pertsonen datuak kudeatzea. Tratamendurako oinarri juridikoa parte-hartzailearen oniritzia da. Zure datuak ezingo dira hirugarrenekin partekatu zure onarpenik gabe. Edonork du eskubidea bere datuak kontsultatzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta euren erabilera mugatzeko gure bulego nagusira idatziz edo emaila bidaliz agifes@agifes.org helbidera. Informazio gehigarria duzu www.agifes.org webgunean.

GURASO EDO TUTOREEN BAIMENA

_____ jaun/andreak, _____
NAN zenbakidunak, _____-ren ama, aita edo
tutorea dela baieztatzen du eta _____-ri bai-
mena ematen dio 'Agifesen Lehen Ilustrazio Lehiaketan' parte hartzeko, lehiaketa honeta-
rako zehaztutako oinarriak onartuz.

ASOCIACION GUIPUZCOANA DE FAMILIARES ENFERMOS PSIQUICOS elkarteak, lehiaketan parte hartzeko emandako datuen tratamenduaren arduradun gisa, jakinarazten du honako helburuekin jaso direla datuak: elkarteak antolatutako zozketa edo lehiaketetan parte hartzen duten pertsonen datuak kudeatzea. Tratamendurako oinarri juridikoa parte-hartzailearen oniritzia da. Zure datuak ezingo dira hirugarrenekin partekatu zure onarpenik gabe. Edonork du eskubidea bere datuak kontsultatzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta euren erabilera mugatzeko gure bulego nagusira idatziz edo emaila bidaliz agifes@agifes.org helbidera. Informazio gehigarria duzu www.agifes.org webgunean.

Data: